

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ALEGIAKO UDALA

*Administrari laguntzaile lanpostuaren deialdia. Prozedura berraktibatzea.*

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 2020/09/11ko alean, prozedura epe mugagabeen bertan behera uzten zela adierazten zuen iragarkia argitaratu zen, SARS-Cov-2ak eragindako pandemiaren bilakaeraren osasun adierazleek oposaketa fasearen probak modu normalean egitea ahalbidetzen zutela adierazi arte.

*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 2021/09/18ko 187 zenbakian argitaraturiko SARS-Cov-2ak eragindako infekzioen hedapena mugatzeko prebentzio neurriak berritzeko Lehendakariaren irailaren 17ko 38/2021 Dekretuak aipatzen dituen pandemiaren bilakaeraren adierazleak kontuan hartuta, bere garaian bertan behera utzitako lehiaketa-oposaketaren prozedura administratiboari dagozkion probak egiteko gutxieneko eta beharrezkoak diren baldintzak ematen direla ondorioztatzen da; indarrean diren osasun eta higiene neurriak eta une bakoitzean aplikagarriak direnak betez.*

Antolamendu juridikoak ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT

*Lehenengoa.* Administrazio orokorreko administrari laguntzaile plazarako lehiaketa-oposaketarako proben gauzatzea berraktibatzea.

*Bigarrena.* Tribunal kalifikatzaileko kide guztiei ebazpen honen berri, eragin guztietara.

*Hirugarrena.* Ebazpenaren edukia iragarki oholean, webgune ofizialean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Alegia, 2021eko irailaren 20a.—Maria Aranzazu Irazusta Etxeberria, alkatea. (6147)

AYUNTAMIENTO DE ALEGIA

*Convocatoria plaza de Auxiliar administrativo. Reactivación del procedimiento.*

En el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 09/11/2020, se publicó anuncio relativo a la suspensión por tiempo indefinido y hasta que los indicadores sanitarios de evolución de la pandemia causada por el SARS-Cov-2 permitieran el desarrollo en normalidad de las pruebas de la fase de oposición.

Considerando los indicadores de la evolución de la pandemia a que se refiere el Decreto 38/2021, de 17 de septiembre, del Lehendakari, de refundición de medidas de prevención para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-Cov-2, publicado en el *Boletín Oficial del País Vasco* n.º 187 de 18/09/2021, se estima, que concurren las circunstancias mínimas necesarias y suficientes, para proceder a la ejecución de las pruebas pertinentes para el procedimiento administrativo de concurso-oposición, suspendido en su día; cumpliendo en todo caso, las medidas higiénico-sanitarias vigentes y que resulten aplicables en cada momento.

En uso de las atribuciones que el ordenamiento jurídico me confiere, vengo en

RESOLVER

*Primero.* Reactivar la ejecución de las pruebas del concurso-oposición para el acceso a la plaza de auxiliar administrativo de administración general.

*Segundo.* Dar cuenta de la resolución a los miembros del tribunal de calificador a todos los efectos.

*Tercero.* Publicar el contenido de la resolución en el tablón de anuncios, página web oficial y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Alegia, a 20 de septiembre de 2021.—La alcaldesa, Maria Aranzazu Irazusta Etxeberria. (6147)